

2025/04/12

AZTERKETAREN KODEA: PSISZ

Denbora, gehienez: 110 minutu.

Galderak: 100 + erreserbako 10

EREDUA:	A
---------	----------

JARRAIBIDEAK

- Ez zabaldu esan arte. Orain, jarraitu jarraibide hauek irakurtzen.
- Idatzi NAN zk. eta LETRA, eta bete laukitxoak, irakurketa optikorako.
- Idatzi 1. DEITURA, 2. DEITURA, IZENA eta DATA.
- AZTERKETA atalean, idatzi goiko aldean ageri den azterketa-kodea.
- Markatu, erantzun-orrian, egokitu zaizun EREDUA.
- Gogoan izan:
 - 110 galdera, launa erantzun-aukerarekin.
 - Aukera baliodun bakar bana. Bat baino gehiago izanez gero, orokorrena edo osoena izango da balioduna, salbu eta enuntziatuan "OKERRA" eskatzen bada. Halakoetan, hiru izango dira zuzenak, eta okerra markatu beharko da.
 - Puntuazioa: Erantzun zuzenak, 1,00 puntu; erantzun okerrak, - 0,33 puntu; baliogabeak, bikoitzak edo zuriak, EZ du zigorrik.
 - Azterketa-eredua jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egin ahalko da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 10 minutuetan.
- Lehenengo 15 minutuak igarotzen direnean eskatu ahal izango duzu azterketa jasotzea.
- Esaten dizutenean, bereizi erantzun-orri zuria eta kopia orria. Zuria antolakuntzako langileei eman behar diezu.
- Kopia horia eta jarraibideen orria zure esku geratuko dira.

Eskerrik asko laguntzagatik

1.- Zein eskubide jasotzen da Konstituzioaren 23. artikuluan?

- a. Askatasunez zirkulatzeko eskubidea
- b. Babes judizial eragingarria izateko eskubidea
- c. Gai publikoetan parte hartzeko eskubidea
- d. Kontzientzia-objekziorako eskubidea

2.- Zer xedatzen du Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua herritarrei dagokienez?

- a. Askatasunez elkartzeko eskubidea
- b. Gastu publikoei aurre egiten laguntzeko eginbeharra.
- c. Jabetza pribaturako eskubidea
- d. Hezkuntza-eskubidea

3.- Zein organok onesten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko legeak?

- a. Eusko Jaurlaritzak
- b. Eusko Legebiltzarrak
- c. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak
- d. Gobernu-kontseiluak

4.- Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egin ondoren, zer gertatzen da Eusko Jaurlaritzarekin?

- a. Desegin egiten da automatikoki.
- b. Funtziotan jarraituko da harik eta Gobernu berriak kargua hartu arte.
- c. Berritu egiten da, aldaketarik gabe.
- d. Zentsura-mozioa egiten da nahitaez.

5.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 39. artikulua arabera, noiztik hartuko dira administrazio-egintzak presuntzioz baliozkotzat, eta ondorioak izango dituzte?

- a. Jakinarazten diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada
- b. Jakinarazpena jasotzen den egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada
- c. Ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada
- d. Prozedura hasten den egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada

6.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua arabera, administrazio-egintzak argitaratu egingo dira, eta jakinarazpen-ondorioak izango dituzte, kasu honetan:

- a. 5 hartzaille baino gehiagori zuzenduta badaude
- b. Edozein motatako hautaketa-prozesu edo norgehiagoka-prozeduretako egintzak badira
- c. Hartzaillea kopuru zehatzeko jende-taldea bada.
- d. Hartzaillea egintza eman deneko udalerrikoa ez bada

7.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 69. artikuluan, honela definitzen du dokumentu-mota bat: interesdunak sinatutako dokumentua, zeinetan adierazten baitu, bere erantzukizunpean, betetzen dituela indarrean den araudiak eskubide edo ahalmen bat aitortzeko edo hura baliatzeko ezarritako betekizunak, baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko duela hark hala eskatzen dionean, eta konpromisoa hartzen duela aurreko betekizun horiek betetzeko aitorten edo baliatze horri dagokion denbora guztian. Zein dokumentu da?

- a. Erantzukizunpeko adierazpena
- b. Erantzukizunpeko ziurtagiria
- c. Zinpeko adierazpena
- d. Zinpeko ziurtagiria

8.- Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua arabera, euskal administrazio publikoek tresna bat baliatzen dute beren barne-egiturak arrazionalizatu eta antolatzeko, langile-beharrak zehazteko, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitzeko, eta lanpostuak sailkatzeko, efikaziari, efizientziari eta antolaketa-arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera. Zein da tresna hori?

- a. Langileen erregistroa
- b. Enplegu-eskaintza publikoa
- c. Lanpostu-zerrendak
- d. Antolakuntza-planak

9.- Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 161. artikulua arabera, hauetako zein EZ da euskal enplegatutako publikoaren eskubide indibidual bat?

- a. Oporrak, atsedenaldirak eta baimenak izateko eskubidea
- b. Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritako jazarpenaren, jazarpen moralaren eta lan-jazarpenaren aurrean arreta eta babesa jasotzeko eskubidea
- c. Emandako zerbitzuari dagozkion ordainsariak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubidea
- d. Askatasun sindikalerako eskubidea

10.- Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzko azaroaren 23ko 12/2023 Legearen 3. artikulua arabera, hauetako zein EZ da suteen prebentzio eta itzalketako eta salbamenduko zerbitzuen eginkizun bat?

- a. Suteak itzaltzea
- b. Pertsona eta animaliak salbatu eta erreskatatzea
- c. Ingurumena babestea ezbeharren bat gertatzen denean
- d. Suteen ikerketa kriminala

11.- 12/2023 Legearen 7. artikulua arabera, zein administrazioari dagokie suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuak emateko eremu geografikoak definitzea?

- a. Udalei
- b. Eusko Jaurlaritzari
- c. Foru-aldundiei
- d. Eusko Legebiltzarrari

12.- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, zeinaren bidez onartzen baita Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, 3. artikuluan jasotzen ditu emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan EAeko botere publikoen jardura gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak. Hauetako zein EZ da printzipio orokorretako bat?

- a. Hizkuntza-eskubideen babesa eta euskararen erabileraren sustapena
- b. Parte-hartzea
- c. Emakumeen inplikazioa
- d. Ordezkaritza orekatua

13.- 1/2023 Legegintzako Dekretuak honela definitzen du, 54. artikuluan, emakumeen aurkako indarkeria matxista:

- a. Emakumeak jasaten dituen indarkeria guztiak
- b. Giza eskubideen urraketa, arazo soziala eta osasun publikoko arazo handia, botere-harreman ez-parekoen eta emakumeen kontrako diskriminazioaren erakusgarri argia
- c. Emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria izan ezik
- d. Sexuagatiko diskriminazio anizkoitza

14.- Zein da Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen xedea, 2. artikulua arabera?

- a. Lan-ordutegiak arautzea
- b. Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea
- c. Gutxieneko soldatak ezartzea
- d. Lanbide-kategoriak definitzea

15.- Langileen osasuna zaintzeari dagokionez, zein eskubide espezifiko aipatzen da 31/1995 Legearen 22. artikuluan?

- a. Azterketa mediko orori uko egiteko eskubidea
- b. Azterketak egiten dituen medikua aukeratzeko eskubidea
- c. Langilearen intimitate eta duintasunerako eskubidea, eta langile horren osasun-egoeraren inguruko informazio ororen isil gorderako eskubidea
- d. Azterketengatik konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea

16.- Adierazi erantzun OKERRA:

- a. Odol Emaileen zidorra oinezkoentzat da.
- b. Odol Emaileen zidorra Mexiko kalean hasten da eta Valentin Foronda Zidorrean amaitzen da.
- c. Ramon Rubial kaleak zaku-hondoa du.
- d. Baranda kalea Luis Olariaga kalean hasten da eta Juan Crisostomo Arriaga kalean amaitzen da.

17.- Adierazi erantzun OKERRA:

- a. Miravalles kalea Gamarra-Betoñuko industrialdean dago.
- b. Mendigorritxu kalea Jundizko industrialdean dago.
- c. Zorrostea kalea Ehari-Gobeuko industrialdean dago.
- d. Jose Maria Iparragirre kalea Armentiako industrialdean dago.

18.- Adierazi erantzun OKERRA:

- a. Goikoberaza kalea Armentiako industrialdean dago.
- b. Landaluzea kalea Jundizko industrialdean dago.
- c. Bitorialanda kalea Ehari-Gobeuko industrialdean dago.
- d. Juan de la Cierva kalea Miñaoko parke teknologikoan dago.

19.- Kale-bikote hauetatik, zein gurutzatzen dira, edo elkar ukitzen dute kale-zatiren batean?

- a. Ozeano Atlantikoaren kalea - Ozeano Barearen kalea.
- b. Varsovia hiribidea - Nikosia kalea.
- c. San Saturio kalea - Luis Maria Uriarte kalea.
- d. Baroa kalea – Lakuaburua kalea.

20.- Agirrelanda kaleko 8. zenbakiko suhiltzaileen parkean bazaude, hauetako zein da biderik egokiena Perretxin kaleko 22. zenbakiko etxebizitza bateko sutera joateko?

- a. Pozoa kalea, Arriagako atea, Zaramaga kalea, Madril kalea, Jacinto Benavente kalea, Heraclio Fournier kalea, Aizkorri kalea, Perretxin kalea.
- b. Pozoa kalea, Arriagako atea, San Ignazio Loiolakoaren kalea, Frantzia kalea, Bake kalea, Florida kalea, Jacinto Benavente kalea, Heraclio Fournier kalea, Aizkorri kalea, Perretxin kalea.
- c. Agirrelanda kalea, Artapadura kalea, Luis Olariaga kalea, Baiona kalea, Iruñea kalea, Antonio Machado kalea, Oto hiribidea, Mendigalari kalea, Perretxin kalea.
- d. Agirrelanda kalea, Zadorra hiribidea, Alibarra kalea, Oto hiribidea, Mendigalari kalea, Perretxin kalea.

21.- Adierazi erantzun OKERRA:

- a. Gabriel Aresti kalea Arriaga-Lakua auzoan dago.
- b. Etxezarra kalea Ariznabarra auzoan dago.
- c. Panama kalea Pilar auzoan dago.
- d. Doris Lessing kalea Zabalgana auzoan dago.

22.- Adierazi erantzun OKERRA:

- a. Logroño kalea Herrandarren kalean hasten da eta Judimendi hiribidean amaitzen da.
- b. Arriurdina kalea Zuazobidean hasten da eta Jundiz kalean amaitzen da.
- c. Apraiztarren kalea Unibertsitateko ibilbidean hasten da eta Miguel Unamuno hiribidean amaitzen da.
- d. Estibalizko Andre Mariaren kalea Urriaren Hamabiaren kalean hasten da eta Federico Baraibar kalean amaitzen da.

23.- Zein EZ da Gasteizko udalerriko herrigune bat?

- a. Uribarri Nagusia
- b. Zumeltzu
- c. Zurbano
- d. Amarita

24.- Zein EZ da Gasteizko udalerriko herrigune bat?

- a. Andollu
- b. Durana
- c. Martioda
- d. Legarda

25.- Zein EZ da Gasteizko udalerriko herrigune bat?

- a. Lasarte
- b. Bolibar
- c. Okina
- d. Lubiano

26.- Zein errepidetatik sartzen da Artatza Forondako herrigunera?

- a. A-4307
- b. A-3002
- c. A-4027
- d. A-4128

27.- Zein errepidetatik joaten da Gasteiz barrutik Gardelegiko udal-zaborteaira?

- a. A-2124
- b. A-3102
- c. A-132
- d. A-3604

28.- Zein errepidetatik joaten da Gasteiz barrutik Zaldiaran mendatera, Berroztegiatik pasata?

- a. A-2124
- b. A-3102
- c. A-132
- d. A-3604

29.- “Zona - kalea/plaza” bikote hauetatik, zein da OKERRA?

- a. San Kristobal – Trenbide kalea
- b. Zabalgunea – Foru plaza
- c. Alde Zaharra – Magdalena kalea
- d. Zaramaga – Martin Olabe kalea

30.- “Zona - kale” bikote hauetatik, zein da OKERRA?

- a. Pilar – Uruguai kalea
- b. Pilar – Argentina kalea
- c. Abetxuku – Arriagana kalea
- d. Abetxuku – Azeduia kalea

31.- “Zona - kale” bikote hauetatik, zein da OKERRA?

- a. Zabalgana – Bartolomé de Las Casas kalea
- b. Armentia – Biak Bat kalea
- c. Txagorritxu – Brasil kalea
- d. Goikolarra – Maturana kalea

32.- “Eraikin berezia - gertuko kalea/hiribidea” bikote hauetatik, zein da OKERRA?

- a. Europa Biltzar eta Erakusketa Jauregia – Bolivia kalea
- b. Arriagako kiroldegia – Frantzisko Xabier Landaburu kalea
- c. Salburuko gizarte-etxea – Bratislava hiribidea
- d. Araneko gizarte-etxea – Valladolid kalea.

33.- “Eraikin berezia – gertuko kalea/hiribidea/plaza” bikote hauetatik, zein da OKERRA?

- a. Mendizorrotzeko kiroldegia – Amadeo Garcia de Salazar plaza
- b. Fruta, barazki eta berduren handizkako azoka – Oto hiribidea
- c. Judimendiko gizarte-etxea - Sefarad plaza
- d. Bakh kirol-gunea – Cervantes ibilbidea

34.- “Eraikin berezia – gertuko kalea” bikote hauetatik, zein da OKERRA?

- a. Kordoi etxea – Errementari kalea
- b. Udaletxea – Mateo Benigno Moraza kalea
- c. Garai bateko ur biltegia – Santa Maria kalea
- d. Artium Museoa – Frantzia kalea

35.- “Eraikin berezia - gertuko kalea/plaza” bikote hauetatik, zein da OKERRA?

- a. Farmazia Fakultatea – Unibertsitateko ibilbidea
- b. Iradier Arena – Berpizkundearen plaza
- c. Fernando Buesa Arena pabiloia – Legutianoko atea
- d. Estadio Fundazioa kirol-gunea – Cervantes ibilbidea

36.- Galizia kalea auzo honetan dago:

- a. Judimendi
- b. Lakua-Arriaga
- c. Pilar
- d. Arana

37.- Biztanlegune hauetatik, zein dago mendebalderago?

- a. Zumeltzu
- b. Uribarri Nagusia
- c. Berroztegieta
- d. Otogoien

38.- Biztanlegune hauetatik, zein dago hegoalderago?

- a. Ariniz
- b. Uribarri Nagusia
- c. Andollu
- d. Otogoien

39.- Adierazi erantzun zuzena:

- a. Gerardo Armesto plaza Zabalgunean dago.
- b. Juana Jugan kalea Judimendin dago.
- c. Sebastián Fernández de Lezeta kalea Txagorritxun dago.
- d. Lima kalea Adurtzan dago.

40.- Adierazi erantzun zuzena:

- a. Pablo Uranga Margolariaren kalea oinezkoentzat da.
- b. Jesus Apellaniz Margolariaren kalea eta Ignacio Diaz Ruiz de Olano Margolariaren kalea gurutzatu egiten dira.
- c. Miguel Jimeno de Lahidalga Margolariaren kalea eta Carlos Saez de Tejada Margolariaren kalea ez dira gurutzatzen.
- d. Obdulio Lopez de Uralde Margolariaren kaleak bi zirkulazio-noranzko ditu ibilgailuentzat.

41.-Kale edo ibilbide hauetako batek Martxoaren 8aren hiribidea gurutzatzen du. Zeinek?

- a. Lisboa kaleak
- b. Berlin ibilbideak
- c. Helsinki kaleak
- d. Viena kaleak

42.- “Kalea - gertuko plaza” bikote hauetatik, zein da zuzena?

- a. Felix Maria Samaniego kalea – Peñafloredako Kondearen plaza
- b. Zabalateko Gazteluaren kalea – Laudio plaza
- c. Arana kalea – Gregorio Altube plaza
- d. Larrea kalea – Karta plaza

43.-Hauetako bat EZ da Ehari auzoko kale bat. Zein?

- a. Egeo itsasoaren kalea
- b. Itsaso Baltikoaren kalea
- c. Tirreniar Itsasoaren kalea
- d. Ipar Itsasoaren kalea

44.-Hauetako bat EZ da Gamarra-Betoñuko industrialdeko kale bat. Zein?

- a. Kapelamendi kalea
- b. Miravalles kalea
- c. Consuelo kalea
- d. Eskalmendi kalea

45.- Hauetako bat EZ da Jundizko industrialdeko kale bat. Zein?

- a. Fuentecillas kalea
- b. Aranbaltza kalea
- c. Zearsoloeta kalea
- d. Kapildui kalea

46.-Hauetako bat EZ da Zabalgana auzoko kalea/hiribidea. Zein?

- a. Oion kalea
- b. Salvador Dalí kalea
- c. Iruña-Veleia hiribidea
- d. Hondarribi kalea

47.- Kale-bikote hauetako batekoak EZ dira gurutzatzen, edo ez dute elkar ukitzen. Zein bikotetakoak?

- a. Sierras Alavesas kalea – Jose Mardones kalea
- b. Hortaleza kalea – Palentzia kalea
- c. Logroño kalea – Arana kalea
- d. Done Jakue hiribidea – Miranda de Ebro kalea

48.- Adierazi erantzun zuzena:

- a. Eduardo Dato kalea eta Alaba Jeneralaren kalea paraleloak dira.
- b. Zerkabarren kalea Jesusen Zerbitzarien Fundatzailearen kalearekiko perpendikularra da.
- c. Txile kalea eta Mexiko kalea paraleloak dira.
- d. Lakuaburua kalea Ihurraldea kalearekiko perpendikularra da.

49.- Gasteizko suhiltzaileen parkean bazaude, hauetako zein da biderik egokiena Gasteizko justizia-jauregiko sute batera joateko?

- a. Pozoa kalea, Arriagako atea, Juan Garai kalea, Latinoamerika plaza, Honduras kalea, Gasteiz hiribidea
- b. Pozoa kalea, Arriagako atea, Juan Garai kalea, Latinoamerika plaza, Euskal Herria bulebarra, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea
- c. Pozoa kalea, Arriagako atea, San Ignazio Loiolakoaren kalea, Frantzia kalea, Bake kalea, Ramon Ortiz de Zarate kalea, Frantzia kalea
- d. Pozoa kalea, Arriagako atea, San Ignazio Loiolakoaren kalea, Frantzia kalea, Bake kalea, Olagibel kalea

50.- San Prudentzio Ikastetxeko kalea auzo honetan dago:

- a. Alde Zaharra
- b. Koroatzea
- c. Lakua-Arriaga
- d. Salburua

51.- Adierazi erantzun OKERRA. Suhiltzaileen eskuliburuan (“Askatzeko tresna eta materialak” atalean), hau adierazten da zizaila erabiltzeko arau orokorreari buruz:

- a. Zizaila ebaketa-gainazalarekiko 90º-ko angeluan jarri beti.
- b. Ebaki behar den materiala puntetatik ahalik eta hurbilen jartzen dela ziurtatu; horrela, ebaketa-eraginkortasun handiagoa lortuko dugu, eta gehiago aprobetxatuko dugu tresnaren ebaketa-potentzia.
- c. Zizaila gehiegi biratzen hasten bada, edo hortzak bereizten ari direla ikusiz gero, mozketa eten eta tresna berriz kokatu.
- d. Ez moztu gas-botilatxorik, aire-poltsarik, aurretenkagailurik eta tentsiodun elementurik.

52.- Dibidieta maneiatzeko neurri hauetako bat EZ dago berariaz jasota suhiltzaileen eskuliburuan (“Askatzeko tresna eta materialak” atalean). Zein?

- a. Dibidieta elektrikoa bada, ez erabili garabi gisa.
- b. Ez erabili pertsonak arrastatzeko.
- c. Ez eragin tornuari, baldin eta kableak danborraren inguruan gutxienez 5 bira ez baditu.
- d. Zaindu une oro kablearen biribilkatzea, tolesturak saihesteko.

53.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburuan (“Eraikuntza-printzipioak eta egiturak egonkortzea” atalean) adierazitakoaren arabera, habe baten materialak, ardatzarekiko perpendikularra den indarrez kargatuta badago, erresistentzia mota honi esker eusten dio deformazioari:

- a. Zizailadurarekiko erresistentzia
- b. Flexioarekiko erresistentzia
- c. Bihurdurarekiko erresistentzia
- d. Nekearekiko erresistentzia

54.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburuan (“Eraikuntza-printzipioak eta egiturak egonkortzea” atalean) suarekiko erresistentziari buruz adierazitakoaren arabera, suaren aurrean R120 gisa sailkatutako elementuek:

- a. Gutxienez 120 minutuz eusten diote bere erresistentzia mekanikoari.
- b. Gutxienez 120 minutuz gordetzen dute bere osotasuna.
- c. Gutxienez 120 minutuz eusten diote bere isolamenduari.
- d. Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

55.- Arrakalak kontrolatzeko prozedura hauetako bat EZ dago berariaz jasota Suhiltzaileen eskuliburuan (“Eraikuntza-printzipioak eta egiturak egonkortzea” atalean). Zein?

- a. Igeltsuzko lekukoak
- b. Zurezko lekukoak
- c. Paperezko lekukoak
- d. Beirazko lekukoak

56.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburuan (“Eraikuntza-printzipioak eta egiturak egonkortzea” atalean) hauxe dio sabaia eskoratzear:

- a. Eskoren artean 0,5 m-ko tartea utziko da gehienez.
- b. Eskoren artean 1 m-ko tartea utziko da gehienez.
- c. Eskoratzte-lerroak egin behar badira, 2 m-koa izango da gehieneko tartea.
- d. Eskoratzte-lerroak egin behar badira, 2,5 m-koa izango da gehieneko tartea.

57.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Suteen aurka borrokatzeko printzipioak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun OKERRA:

- a. Sukoitasunaren goiko muga da airean izan daitekeen erregai-lurrunen gehieneko kontzentrazioa, zeinaren gainetik ez baita errekuntzarik gertatzen.
- b. Erregai baten bero-ahalmena da erregai batek masa-unitate bakoitzeko isur dezakeen bero-kantitatea, errekuntza-prozesu oso bat jasatean.
- c. Toxikotasuna da substantzia batek organismo bizi bati efektu kaltegarria eragiteko duen gaitasuna.
- d. Errekuntza-abiadura da erregai bateko sugarrek norabide jakin batean duten azaleko hedapenaren abiadura linealaren neurria.

58.- Adierazi erantzun OKERRA. Suhiltzaileen eskuliburuan (“Suteen aurka borrokatzeko printzipioak” atalean) hau adierazten da su-motei buruz:

- a. Bi modutan sailka daitezke: erregai motaren arabera, eta sortutako argi-erradiazio motaren arabera.
- b. B klaseko suak likidoen edo solido likidogarrrien suak dira.
- c. D klaseko suak metalen suak dira.
- d. G klaseko suak sukaldeko gailuetan jakiak prestatzeko osagaiek (landare edo animalia jatorriko olioak eta gantzak) eragindako suak dira.

59.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburuan (“Suteen aurka borrokatzeko printzipioak” atalean) hau adierazten da itzaltzeko hautsaren oinarrizko propietateei buruz:

- a. 500 mikra baino gutxiagoko partikuletan zatikatzea.
- b. Toxikotasun handia du. Kantitate handian, arnasa hartzeko zailtasunak eta ikuspen falta eragin dezake.
- c. Elektrizitate-eroale ona da.
- d. Hauts itzaltzailea egonkorra da 600^o C-tik gorako tenperaturan.

60.- Suhiltzaileen eskuliburuak (“Baso-suteak” atalean) landaretza-suari buruz dioenaren arabera, adierazi erantzun OKERRA:

- a. Erregaitasunari dagokionez, guztizko erregai deitzen zaio da sutea izan den lekuan dagoen materia guztiari.
- b. Erregaitasunari dagokionez, erre daitekeen erregai deitzen zaio (“combustible disponible”) sutean erretzeko eta kontsumitzeko baldintzetan dagoenari.
- c. Kokalekuaren edo kokapen espazialaren arabera, azaleko erregai deitzen zaie lurzorutik metro erditik behera daudenei.
- d. Kokalekuaren edo kokapen espazialaren arabera, aireko erregai deitzen zaie lurzorutik metro erditik gora daudenei.

61.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Baso-suteak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun zuzena:

- a. Landare batek izan dezakeen ur-kopurua, bizirik zein hilik egon, lehor dagoenean duen pisuaren % 0 eta % 400 artekoa izan daiteke.
- b. Hedapenaren oinarritzko patroia arabera, hauek dira sutearen garapenari eragiten dioten oinarritzko faktoreak: erregaiak, topografia, tenperatura, hezetasuna eta haizearen norabidea.
- c. Eragindako geruza begetatiboaren arabera, eta erregaiaren kokapen espazialaren arabera, su-mota hauek ditugu: larre-suak, basoberako suak, adaburuak eta lurpeko suak.
- d. Landaretza-motaren arabera, honako hauek bereiz ditzakegu: larre-sua, sastrakadiko sua, basoberako sua, baso garaiko sua (edo adakerarena) eta su mistoa.

62.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Baso-suteak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun zuzena:

- a. Hauek dira landaretza-sute baten garapenean kontuan hartu beharreko faktore meteorologiko nagusiak: erregai-mota, orografia, tenperatura, hezetasun absolutua eta haizea.
- b. Mendi-hegaleko haizeei dagokienez, ohikoena da egunez goranzko haizeak izatea eta gauez beheranzko haizeak.
- c. Ipar-osagaia duten haizeak iparralderantz doazenak dira eta 315º eta 45º arteko norabidea dute.
- d. Hego-osagaia duten haizeak hegoaldera doazenak dira, eta 45º eta 135º arteko norabidea dute.

63.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Baso-suteak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun zuzena:

- a. Baldintza meteorologiko normaletan, baso-sute handi batek 1-2 km/h-ko abiaduran egiten du aurrera, eta zereal-uztondoen sute batek, eguna lehorra bada, 8 km/h-ko abiaduran, gutxi gorabehera.
- b. Baldintza meteorologiko normaletan, baso-sute handi batek 4-6 km/h-ko abiaduran egiten du aurrera, eta zereal-uztondoen sute batek, eguna lehorra bada, 8 km/h-ko abiaduran, gutxi gorabehera.
- c. Baldintza meteorologiko normaletan, baso-sute handi batek 1-2 km/h-ko abiaduran egiten du aurrera, eta zereal-uztondoen sute batek, eguna lehorra bada, 12 km/h-ko abiaduran, gutxi gorabehera.
- d. Baldintza meteorologiko normaletan, baso-sute handi batek 4-6 km/h-ko abiaduran egiten du aurrera, eta zereal-uztondoen sute batek, eguna lehorra bada, 12 km/h-ko abiaduran, gutxi gorabehera.

64.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Suteen prebentzioa” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun zuzena. Irteera-atea ebakuazio- noranzkoan irekiko da kasu honetan, besteak beste:

- a. Ate hori 50 pertsona baino gehiago irteteko aurreikusita badago, edo bizitegi-erabilerako eraikinen kasuan, 200 pertsona baino gehiago irteteko.
- b. Ate hori 50 pertsona baino gehiago irteteko aurreikusita badago, edo bizitegi-erabilerako eraikinen kasuan, 250 pertsona baino gehiago irteteko.
- c. Ate hori 100 pertsona baino gehiago irteteko aurreikusita badago, edo bizitegi-erabilerako eraikinen kasuan, 200 pertsona baino gehiago irteteko.
- d. Ate hori 100 pertsona baino gehiago irteteko aurreikusita badago, edo bizitegi-erabilerako eraikinen kasuan, 250 pertsona baino gehiago irteteko.

65.- Adierazi erantzun OKERRA. Suhiltzaileen eskuliburua (“Suteen prebentzioa” atala) oinarri hartuta, 15 eguneko epea du enpresak Eusko Jaurlaritzari jakinarazteko, sute industrial batean honelakorik gertatzen bada:

- a. Kanpoko medikuen arreta eskatzen duten kalte pertsonalak.
- b. Jarduera industrialaren erabateko etenaldia.
- c. Jarduera industrialaren 7 egunetik gorako etenaldi partziala.
- d. 30.000 eurotik gorako kalte materiala.

66.- Adierazi erantzun OKERRA. Suhiltzaileen eskuliburuan (“Suteen prebentzioa” atalean) hau adierazten da zutabe lehorrei buruz:

- a. Oro har, 24 metrotik gorako ebakuazio-altuera duten eraikinetan aurki ditzakegu.
- b. Oro har, sestra azpian 2 solairu baino gehiago duten garajeetan aurki ditzakegu.
- c. 15 bar-eko presioan probatzen dira; hori dela eta, altuera handiko eraikinetan ezin ditugu presio handiz erabili.
- d. Ebaketa-giltza bat egon behar du 4 solairutik behin, zutabearen zati bat bakarrik erabili ahal izateko, oso altua bada.

67.- Adierazi erantzun OKERRA. Suhiltzaileen eskuliburuan (“Suteen prebentzioa” atalean) hau adierazten da larrialdiko argiztapenari buruz:

- a. Argi nahikoa egon behar da ebakuazio-bideetan, suteen kontrako babes ekipoen ondoan eta irteerako ateetan.
- b. Argiztapen normalaren tentsioa % 50 murrizten denean piztu behar da.
- c. Ez du itsualdirik eragin behar.
- d. Ordubetez argiztatu behar du energia-iturri propioa baliatuta.

68.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburua (“Arrisku Naturalak” atala) oinarri hartuta, nola deitzen zaie mapa sismikoetan intentsitate sismiko bereko puntuak lotzen dituzten lerroei?

- a. Isosistak
- b. Isosismak
- c. Isobatak
- d. Isokronak

69.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburua (“Arrisku naturalak” atala) oinarri hartuta, nola deitzen zaie nagusiki ferrosoak diren meteoritoei?

- a. Aerolitoak
- b. Lititoak
- c. Sideritoak
- d. Meteoferritoak

70.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Arriskua, gai arriskutsuak tartean direnean” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun OKERRA:

- Beta erradiazioak energia handiko elektroiak dira.
- Alfa partikulek ia ez dute barneratzeko ahalmenik.
- Gamma erradiazioa ez da alfa edo beta desintegrazioarekin lotuta agertzen.
- Normalean, neutroi-erradiazioak zentral nuklearretan edo laborategi nuklearretan bakarrik agertzen dira.

71.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Arriskua, gai arriskutsuak tartean direnean” atala) oinarri hartuta, sekzio-zirkularra duten zisternek honakoak garraiatu ohi dituzte:

- Giza-kontsumorako likidoak
- Produktu presurizatuak
- Likido sukoiak
- Produktu toxikoak edo korrosiboak

72.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburua (“Arriskua, gai arriskutsuak tartean direnean” atala) oinarri hartuta, zein EZ da erregarria?

- Oxigenoa (O_2)
- Potasio kloratoa ($KClO_3$)
- Sodio fosfata (Na_3PO_4)
- Hidrogeno peroxidoa

73.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Arriskua, gai arriskutsuak tartean direnean” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun zuzena lurrin-presioari buruz:

- Bere balioa bat dator presio atmosferikoarekin.
- Irakitea deitzen zaio ontzi ireki batean lurrin-presioa presio-atmosferikoarekin parekatzen denean.
- Gasolina litro bat 10 litroko ontzi batean, eta likido/lurrin orekan badago, eta temperatura konstantean, ontziaren bolumena 5 litroa arte murriztuko da. Berriz ere orekatzean, ontziaren barruko presioa bikoiztu egingo da.
- Lurrin-presio handiak dituzten substantziek irakite-puntu altuak dituzte.

74.- Suhiltzaileen eskuliburuak (“Arnasa babesteko ekipoak” atalean) dioenaren arabera, substantzia hauetako batek eragotzi egiten du arnasketa zelula mailan. Zeinek?

- Nitrogeno dioxidoak NO_2
- Karbono monoxidoak CO
- Azido zianhidrikoak HCN
- Fosgenoak $COCl_2$

75.- Suhiltzaileen eskuliburuak (“Arnasa babesteko ekipamenduak” atalean) dioenaren arabera, A letra duten gas-iragazkiek zeren aurkako babesa ematen dute?

- a. Lurrun organikoak
- b. Azidoak
- c. SO_4
- d. Amoniakoa

76.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Arnasa babesteko ekipoak” atala). Arnasketa-ekipo batean 6 litroko aire-botila bat dugu; honek 200 bar-eko zerbitzu-presioa du eta alarma akustikoa aktibatzen duen presioa 50 bar-ekoa. Erabiltzaile batek batez beste minutuan 50 litro kontsumitzen baditu, zein izango da lan-autonomia, erreserbako airea kontuan hartu gabe?

- a. 30 minutu.
- b. Erabiltzailearen faktoreen arabera (birika-edukiera, adina, pisua...).
- c. Une horretan egiten ari den lanaren arabera.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

77.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Sua itzaltzeko bitartekoak” atala) oinarri hartuta, hau izan ohi da, gutxi gorabehera, aparrak aplikatzeko tasa, baldintza egokietan:

- a. 200 litro minutuko, metro koadro eta ordu bakoitzeko.
- b. 6 litro minutuko, su hartutako azaleraren metro koadro bakoitzeko.
- c. % 10 apar-sortzaile uretan.
- d. 10 litro minutuko, Z200 hornitzailearekin eta M400 jaurtigailuarekin.

78.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Sua itzaltzeko bitartekoak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun OKERRA:

- a. Su-itzalguetan, karbono dioxidoa (CO_2) fase likidoan gordetzen da, eta elur karbonikoa proiektatzen da -49°C -ko tenperaturan, gutxi gorabehera.
- b. Hauts lehorra eraginkorra da A, B eta C motako suteetan.
- c. Hautsezko su-itzalgu batek 10 metroko irismena du gehienez.
- d. 1 kg haloiko su-itzalgu batek 8 segundoko deskarga-denbora du.

79.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika” atala) oinarri hartuta, neurri hauetako hiru ia baliokideak dira. Adierazi baliokidea EZ dena:

- a. 1 bar
- b. 10 m.c.a
- c. 100.000 Pa
- d. 40 psi

80.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun OKERRA:

- Presio hidrostatiakoak, geldiunean dauden fluidoetan, indar perpendikularra eragiten du ontziaren paretekiko edo murgildutako objektuaren gainazalarekiko, edozein delarik aldeek hartzen duten orientazioa.
- Presio absolutuaren eta presio atmosferikoaren batura presio atmosferikoaren baliokidea da.
- Merkurioa ura baino 13,6 aldiz dentsoagoa denez, sakonera berean eragiten duen presioa ere handiagoa da.
- Airearen dentsitatea $1,29 \text{ Kg/m}^3$ ingurukoa da.

81.- Suhiltzaileen eskuliburuan (“Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika” atalean) adierazten denez, Reynolds (Re) zenbakiak erlazionatu egiten ditu likido baten abiadura, hodiaren diametroa eta likidoaren zenbait ezaugarri fisiko. Zein Re jotzen da portaera laminartzat?

- <2100
- 2100 eta 4000 artekoa
- $\text{Re} > 4000$ tik gora
- Re balioak ez du balizko erregimen zurrunbilotsua adierazten

82.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun zuzena. Ura garraiatzean, 70 mm-ko diametroa duen mahukatik 25 mm-koa duen mahukara aldatzen bada:

- Presioa jaitsi egiten da.
- Abiadura jaitsi egiten da.
- Kolapsoa gertatzen da, eta ez da urik pasatzen.
- Energia totala aldatu egiten da, jarraitutasun-printzipioaren ondorioz.

83.- Suhiltzaileen eskuliburuak (“Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika” atalean) dioenaren arabera, zein ponpa erabiltzen dira gehien suhiltzaile-zerbitzuetako ibilgailuetan?

- Zentrifugoak
- Pistoi-ponpak
- Mintz-ponpak
- Ardatz-ponpak

84.- Suhiltzaileen eskuliburuak (“Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika” atalean) dioenaren arabera, kamioiaren ponpa martxan badago eta ura isurtzen ari ez bada:

- Ponparen gorputzean dagoen huste-balbula ireki behar da pixka bat.
- Ahari-kolpea izateko arriskua dago.
- Energia zinetikoa oso handia da, eta hausturak eragin ditzake.
- Komenigarria da itzultze-balbula pixka bat irekitzea.

85.- Suhiltzaileen eskuliburuak (“Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika” atalean) dioenaren arabera, zer erabili behar da erregai likido polarretarako?

- a. AFFF aparrak
- b. Alkoholaren aurkako aparrak
- c. A motako aparrak
- d. C.P. aparrak

86.- Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) oinarri hartuta, adierazi erantzun zuzena. Nori dagokio/dagokie larrialdi-faseko 1. egoera deklaratzeari?

- a. Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren batzordeari.
- b. Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren zuzendaritzari.
- c. Udal- edo foru-agintariei.
- d. Ekintza-taldeko arduradun gorenari, larrialdi motaren arabera dagokion zuzendaritza operatiboarekin.

87.- Euskadiko Babes Zibileko Planaren arabera (LABI), adierazi erantzun OKERRA:

- a. Larrialdi-faseko 3. egoeran, autonomia-erkidegoko ordezkariari egokituko zaio zuzendaritza, berariaz beste norbaiten esku uzten den kasuetan izan ezik.
- b. Larrialdi-faseko 3. egoeran zuzendaritza-batzordea osatuko da.
- c. Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planaren zuzendaritzak baliabide propioak koordinatzen jarraituko du.
- d. CECOP CECOPI bihurtzen da.

88.- Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboen arabera, zein taktika aktibatuko litzateke Zaldiaran mendiko magaletan dagoen norbait erreskatatzeko?

- a. PG1
- b. M0
- c. M1
- d. M2

89.- Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboen arabera, zein taktika aktibatuko litzateke salgai arriskutsuak garraiatzen dituen ibilgailu batek istripua badu eta zisternak gasolina-isuria badu?

- a. TPC1
- b. TPC2
- c. TPC3
- d. TPC4

90.- Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboen arabera, zein taktika aktibatuko litzateke Gasteizko udalerriko baserri batek su hartuz gero?

- a. SG1
- b. SG2
- c. SG3
- d. SG10

91.- Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboen arabera, adieraz ezazu erantzun zuzena. Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzuko teknikariak:

- a. Aginte Postu Aurreratuan integratu ondoren, bere gain har ditzake operazioak zuzentzeko lanak.
- b. Gertakariaren lekura joaterik izango du, eta Aginte Postu Aurreratuan integratuko da.
- c. Aplikatu beharreko taktikan aurreikusitako koordinazioaz arduratuko da, hainbat bitarteko edo baliabideren lankidetzara behar denean.
- d. Taktika operatiboen fase automatikoan baliabideak mobilizatuko ditu.

92.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburuan (“Banaketa sareak eta instalazioak” atalean) honela definitzen dira behe-tentsioko instalazio elektrikoak: aparatu eta zirkuitu elkartuen multzo bat, zeinen tentsio izendatua honako hau edo gutxiago baita:

- a. 600 V korrante alternoa bada, edo 1500 V korrante zuzena bada.
- b. 1500 V korrante alternoa bada, edo 600 V korrante zuzena bada.
- c. 1500 V korrante alternoa bada, edo 1000 V korrante zuzena bada.
- d. 1000 V korrante alternoa bada, edo 1500 V korrante zuzena bada.

93.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Banaketa sareak eta instalazioak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun zuzena. Zer adierazten du goi-tentsioko linea bati eusten dion elementu isolatzailearen disko bakoitzak?

- a. 1.000V
- b. 10.000V
- c. 100.000V
- d. Aurrekoetako bat ere ez.

94.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburuak (“Banaketa sareak eta instalazioak” atalean) adierazten duenez, zein segurtasun-neurri mantendu behar da tentsio-elementuekin, arriskuak saihesteko?

- a. 5 m-tik gora, tentsioa 50kV-ekoa edo handiagoa bada, eta 3,5 m-tik gora txikiagoa bada.
- b. 5 m-tik gora, tentsioa 60kV-ekoa edo handiagoa bada, eta 3,5 m-tik gora txikiagoa bada.
- c. 5 m-tik gora, tentsioa 50kV-ekoa edo handiagoa bada, eta 3 m-tik gora txikiagoa bada.
- d. 5 m-tik gora, tentsioa 60kV-ekoa edo handiagoa bada, eta 3 m-tik gora txikiagoa bada.

95.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Banaketa sareak eta instalazioak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun**OKERRA:**

- a. Etxebizitzetako instalazio elektrikoek bizilagun bakoitzeko 10-20 bitarteko kontsumo-intentsitateko potentziak izaten dituzte kontratatuta, normalean.
- b. Zirkuitulaburrak eragindako kalteak saihesteko, etengailu magnetotermikoak, fusibleak eta abar instalatzen dira. Horiei esker korronteez milisegunduak bakarrik irauten dituzte, eta ez dute sute bat eragiteko adinako berorik sortzen.
- c. Instalazio trifasiko bateko fase bat galtzen bada (etxebizitza-eraikinetan, esaterako) instalazioa gehiegi karga daiteke, eta sute-tenperatura eta -beroa izatera iritsi.
- d. Elektrizitatearekin lan egiteko, norbera babesteko ekipamenduen artean botak eta babes-eskularruak ditugu, besteak beste.

96.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Banaketa sareak eta instalazioak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun**OKERRA:**

- a. Lurrun-presioa handitu egiten da tenperatura handitzearekin batera.
- b. Propanoaren dentsitate erlatiboa airearena baino handiagoa da.
- c. Gas naturalaren dentsitate erlatiboa airearena baino handiagoa da.
- d. Airean % 2ko butano-nahasketa egotea leherkotasunaren mugen barruan dago.

97.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Banaketa sareak eta instalazioak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun**OKERRA:**

- a. Esplosimetroa atmosfera garbian piztu behar da beti.
- b. Esplosimetroa erreferentziako gas batekin kalibratuta egon ohi da, eta, beraz, kalibratzeko erabilitako gasa aztertzeko bakarrik izango da neurketa zehatza.
- c. Esplosimetroan % 10 irakurtzeak esan nahi du erreferentziako gasa ehuneko horretan kontzentratuta dugula.
- d. Esplosimetroaren aurrealarmak leherkorra izan daitekeen atmosfera batean gaudela adierazten digu.

98.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Tresnak eta ekipoak erabiltzea” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun OKERRA, goi-presioko kuxin pneumatikoei dagokienez:

- a. 10 bar-erainoko presioak izatera irits daitezke.
- b. Oso karga astunak bultzatzeko erabiltzen dira.
- c. Metro koadro batera arteko azalera izan dezakete.
- d. Aire konprimatuko botiletara konektatzen dira zuzenean.

99.- Baso-lanerako gehien erabiltzen diren tresna hauetako zein EZ dago jasota Suhiltzaileen eskuliburuan (“Tresna eta ekipoak erabiltzea” atalean)?

- a. Pulaskia
- b. Garlopa
- c. Urkila
- d. Aitzurra

100.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko ibilgailuak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun OKERRA. Lehentasuna duten ibilgailuetako gidariak:

- a. Abiadura-mugen gaineratik zirkulatu ahal izango dute larrialdi-zerbitzuan ari badira.
- b. Zirkulazio-arauak betetzeari utz diezaiokete, beren erantzukizunpean, salbu eta agenteen aginduak eta seinaleak badira, horiek nahitaez bete beharrekoak baitira beti.
- c. Salbuesenez, autobidetik larrialdi-zerbitzuan zirkulatzen ari direnean, eta erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jartzen ez badute, buelta eman eta kontrako noranzkoan zirkulatu ahal izango dute, edozein erreititik.
- d. Argi-seinalea bakarka erabili ahal izango dute, baldin eta seinale akustiko bereziak ez jartzeak gainerako erabiltzaileentzat inolako arriskurik ez badakar.

Erreserbako galderak:

101.- Adierazi erantzun zuzena. Suhiltzaileen eskuliburuak (“Arriskua, gai arriskutsuak tartean dauden istripuetan” atalean) dioenaren arabera, onargarriztat jotzen dira, azidotasunari dagokionez, ur-ibilguetara edo lurrera egindako isuriak, baldin eta pH balio hau badute:

- a. 5 eta 9 artekoa
- b. 6 eta 8 artekoa
- c. Neutroa
- d. 7tik beherakoa

102.- Suhiltzaileen eskuliburuan (“Ponpak. Suhiltzaileentzako oinarrizko hidraulika” atalean) adierazten denez, honako hauek gehitzen zaizkio urari erregaiekiko itsaspen handiagoa izan dezan:

- a. Hezetzailak
- b. Lodigarriak
- c. Atzeratzaileak
- d. Inhibitzaileak

103.- Suhiltzaileen eskuliburua (“Banaketa sareak eta instalazioak” atala) oinarri hartuta, adierazi erantzun zuzena:

- a. GNL litro bat 400 litro gas natural bihurtzen da lurruntzean.
- b. Butanoa 20°C-tan badago, lurrun-presioa 8,5 bar ingurukoa da.
- c. Propanoa 20°C-tan badago, lurrun-presioa 8,5 bar ingurukoa da
- d. Gas naturalaren tenperatura kritikoa -160°C-koa da.

104.- Adierazi erantzun zuzena. Euskadiko Babes Zibileko Planaren arabera (LABI), larrialdi-faseko 0 egoeran:

- a. Aplikatutako Larrialdi Planaren zuzendaritza agintaritza autonomikoari dagokio.
- b. Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planak koordinazio- eta laguntza-eginkizunak betetzen ditu.
- c. Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Plana formalki aktibatzen da.
- d. Aholku-kontseilua biltzeko deialdiaren aurreabisua egin daiteke.

105.- Suhiltzaileen eskuliburuan (“Banaketa sareak eta instalazioak” atalean) hau adierazten da goi-tentsioko lineen kategoriei buruz:

- a. Hirugarren kategoria: 1 kV-tik 30 kV-era.
- b. Hirugarren kategoria: 60kV baino gehiagotik 220kV-era
- c. Lehen kategoria: 1 kV-tik 30 kV-era
- d. Hirugarren kategoria: 66kV baino gehiagotik 220kV-era.

106.- Adierazi erantzun OKERRA. Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboen arabera, mobilizazio-irizpideek printzipio hauek beteko dituzte:

- a. Erantzuna berehalakoa izatea.
- b. Larrialdi-lekua hurbil egotea.
- c. Baliabide ekonomikoak izatea.
- d. Esku-hartzen dutenen espezializazioa.

107.- Buztinzuri kalea auzo honetan dago:

- a. Salburua
- b. Zabalgana
- c. Goikolarra
- d. San Martin

108.- Suhiltzaileen eskuliburuak (“Arriskua, gai arriskutsuak tartean direnean” atalean) dioenaren arabera, zein ezaugarrietatik da ezaguna propilenglikola?

- a. Deskutsatzailea izatea
- b. Sukoia izatea
- c. Erregarria izatea
- d. Hidrofoboa izatea

109.- Euskadiko Babes Zibileko Planaren arabera (LABI), zein da zuzena?

- a. Alerta-faseak agertutako larrialdi-egoerei erantzuten die.
- b. Larrialdi-fasean, aurreikuspenen larritasunak aparteko neurriak hartzea eskatzen duen egoerak sartzen dira, Baita larrialdi-egoera oraindik gertatu ez bada ere.
- c. Larrialdi-faseko 1. egoeran, Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planak jarraipen- eta ebaluazio-funtzioak egiten ditu.
- d. Errekuperazio-fasean, larrialdi-egoera amaitutzat deklaratzeko bezain egonkorak ez diren larrialdi-osteko egoerak sartzen dira.

110.- Suhiltzaileen eskuliburuak (“Arnasa babesteko ekipoa” atalean) dioenaren arabera, karbono dioxidoak buruko mina eragin dezake:

- a. % 0,02tik aurrera, 2 edo 3 ordu pasa ondoren.
- b. % 5etik aurrera, 3 edo 4 ordu pasa ondoren.
- c. % 7tik aurrera.
- d. Gorakoa eragin dezake, baina ez buruko minik.